



IKASLEEN TXOKOA 97. ZENBAKIA

# Martuteneko Arantzazuko Ama BHI

**Egileak:**

Goian ezkerretik eskuinera: Naroa Agirrezabalaga, Mara Turri, Samira Tamegne, Lierni Aranzadi, Julene Otaegi  
Behean ezkerretik eskuinera: Uxue Lajas, Laida Pova, Hielen Betelu, Nerea Gomez



# Osasunaren txokoa: sendabelarrak

Hona hemen pare bat sendabelarrei buruzko xehetasunak, gure osasuna zaintzen laguntzeko.

## Perrexila

Perejil / Perrexila / *Petroselinum*



Perrexila jatorri mediterraneo-ko sendabelar landarea da, eta propietate diuretikoak, antioxidatzaileak, antiinflamatorioak, bakterioen aurkakoak, diabetikoen aurkakoak, immunomodulatzaileak, zitotoxikoak eta nefrobabesleak ditu.

Hori dela eta, oso erabilia da giltzurrunetako gaixotasunak tratatzeko, hala nola, gernu-infekzioak eta giltzurrunetako harriak, eta hipertentsiorako, bere propietate diuretikoak direla eta.

Bere hostoak, haziak eta sustraiak erremedio naturalak, irabiatuak, teak eta sasoiko otorduak prestatzeko erabiltzen dira, eta fresko edo deshidratatuta aurki daitezke.

### ERABILERA:

1. Gernu-infekzioei aurre egiten die.
2. Sistema immunologikoa indartzen du.
3. Diabetesa kontrolatzen laguntzen du.
4. Hipertentsioa hobetzen du

eta likidoen atxikipenari aurre egiten dio.

5. Anemia prebenitu eta borrokatzen du.
6. Begien osasuna babesten du.
7. Iarruazaleko osasuna zaintzen du.
8. Giltzurrunetako harriak saihesten ditu.
9. Minbizia eta gaixotasun kronikoak prebenitzen ditu.
10. Bihotzeko gaixotasunak saihesten ditu.
11. Digestioa hobetzen du.
12. Zure hezurren osasuna zaintzen du.

### NOLA ERABILTZEN DA (TRATAMENDUA):

Perrexila nahiko polifazetikoa da eta zukuak, zopak, irabiatuak, entsaladak, itsaskiak eta arraina bezalako elikagaietan zaporea emateko erabil daiteke.

#### 1. Perrexil tea:

Perrexil tea gernu-traktuko infekzioa, giltzurrunetako harriak, hipertentsio arteriala eta likidoen atxikipena kontrolatzeko erabil daiteke.

#### Osagaiak:

- Koilarakada 1 perrexil lehor edo 3 koilarakada perrexil fresko
- 250 ml ur irakinetan.

#### Prestaketa:

Gehitu perrexila ur irakinetan, estali eta utzi 10 minutuz. Iragazi eta edan gehienez 3 edalontzi

egunean. Garrantzitsua da gogoratzea te hau ez dela gomen-dagarria haurdun dauden emakumeentzat.

#### 2. Perrexil zuku berdea:

Perrexilarekin egindako zuku berdea azala gazte eta osasuntsu mantentzen laguntzen duen antioxidatzaileetan aberatsa da; likidoen atxikipenari aurre eginez, pisua galtzeko dietetan ere lagungarria da.

#### Osagaiak:

- 1/2 kopa perrexila.
- 1 laranja.
- 1/2 sagar.
- 1/2 pepino.
- Edalontzi bat koko urarekin.

#### Prestaketa:

Nahasi osagai guztiak eta edan azukrerik gehitu gabe eta iragazi gabe.

## Zaldi-buztana

*Cola de caballo / zaldi - buztana / equus caudam*



Zaldi-buztana *Equisetum arvense* espeziearen sendabelar bat da, likidoen atxikipenari aurre egiteko etxeko erremedio gisa erabiltzen dena, pisua gal-

tzen laguntzen du eta hezurak sendotzen ditu. Horrez gain, bere propietate antiinflamatorio eta diuretikoengatik, giltzurrunetako harrien eta gernu-infekzioen tratamendurako laguntza gisa erabil daiteke.

Zaldi-isatsa, zurtoin lehorretik prestatutakoa, landare hau kontsumitzeko modurik erabiliena da, osasun-elikagaien dendetan eta botika batzuetan aurki daitekeena. Zaldi-buztana kontsumitzeko beste modu bat kapsula moduan da. Osasunerako hainbat onura dituen arren, zaldi-buztanaren erabilerak albo-ondorio batzuk ere sor ditzake, batez ere landarea gehiegizko kantitateetan edo astebete baino gehiagoz kontsumitzen denean; buruko min larria edo pankreatitisa, adibidez.

### ERABILERA:

1. Fluido atxikipena mantentzen du.
2. Pisua galtzen laguntzen du.
3. Gernu-infekzioari aurre egiten dio.
4. Tentsio arteriala jaisteko balio du.
5. Hezurren osasuna mantentzen du.
6. Azazkalen eta azalaren itxura hobetzen du.
7. Onddoak eta bakterioak desagerarazten ditu.

### NOLA ERABILTZEN DA (TRATAMENDUA):

Zaldi-buztanak propietate diuretikoak, antiinflamatorioak, antioxidatzaileak, mikrobioen aurkakoak, sendagarriak eta remineralizatzaileak ditu, eta

hainbat helburutarako erabil daiteke.

#### 1. Zaldi-buztan tea:

Zaldi-buztanaren tea da landare honen kontsumo-modu nagusia, zurtoin lehorrekin egina, eta diuretiko gisa erabil daiteke gernu-infekzioak tratatzen laguntzeko, pisua galtzen laguntzeko edo hipertentsioaren aurka borrokatzeko.

#### Osagaiak:

- Edalontzi bat ur irakIn.
- Koilarakada bat zaldi buztana.

#### Prestaketa:

Jarri zaldi-buztanaren zurtoin lehorra ur irakinetan eta utzi 5-10 minutuz. Iragazi eta edan gehienez 2 edalontzi egunean, ahal izanez gero eguneko otordu nagusien ondoren. Te hau ez da jarraian astebete baino gehiago erabili behar.

#### 2. Zaldi-buztana beste modu batzuetan:

Teaz gain, zaldi isatsa 100 mg-ko kapsuletan aurki daiteke, gosaldur edo bazkaldur ondoren kontsumitzen direnak, eta beti erabili behar da medikuen gidaritzapean edo nutrizio-landareetan esperientzia duen osasun-profesional baten eskutik.

Zaldi-buztana erabiltzeko beste modu bat gernu-traktuko infekzioak tratatzen lagun dezakeen bainu bat egitea da. Eseri-bainua egiteko, besterik gabe, jarri 3 zurtoin lehor eskukada bainu-uretan eta egon uretan murgilduta 5-10 minutuz.

**Egilea: Julene Otaegi, 1. DBH**

# Gizarteak askatasuna eman ala kendu egiten al digu?

Gizakiak oso beharrezkoa du gizarteak. Honi esker gauza asko ikas ditzakegu, bizimodu bat izan eta beste gauza asko. Baina gizarteak aske egiten gaitu ala askatasuna kentzen digu?

Gizarteari esker, gauza asko ikasten ditugu; batzuk beste batzuk irakatsita, eta beste ba-

tzuk, berriz, kopiatuz. Haurrak garenean mugak jartzen badizkigute, handitzean eta beste muga batzuekin topo egitean, hauek hobeto onartzeko kapaz izango gara, eta horrek neurri batean, askeak egingo gaitu. Aldiz, haurrak garenean ez badigute mugarik jartzen, handitan ezingo ditugu neurri hauek ongi onartu eta ondorioz, gaizki erreakzionatuko dugu. Bestalde, egia da gizarteak askatasuna ematen digula gure iritzia emateko. Askeak izango ez bagina, ez genuke hori egingo. Haur garenean hizkuntza bat erakusten badigute, handitan hizkuntza

gehiago ikasteko askatasuna ematen digute, baita besteekin komunikatzeko ere.

Hala ere, aldi berean, gizarteak mugak jartzen dizkigu. Berez, ez gara guztiz askeak. Askotan diskriminazioaren biktimak gara, eta ondorioz, gure askatasuna galtzen dugu. Zerbait egitera derrigortuta bagaude, ez gara aske izango. Adibidez: Derrigortuta banago legea betetzera, agian nire ustez ondo dauden gauzen aurka joan beharko dut. Ez dut nire kabuz aukeratzeko zerbait ondo edo gaizki dagoen. Bestalde, ziurgabetasunak baditugu, hein batean askata-



suna galtzen ari gara. Adibidez, nik itxura bat izan nahi badut edo jokabide bat izan, baina ez banaiz seguru sentitzen eta jendeak esango duenaren beldur banaiz, seguruenik ez dut nahi dudana egingo.

Nire ustez, nahiz eta gizarteak neurri batera arte askatasuna eman, gehiago kentzen du ematen duena baino. Izan ere, gizarteak muga asko jartzen

dizkigu eta nire ustetan, puntu batera arte manipulatu gaudede. Beraz, gizarteak garatzeko aukera ematen du eta horrekin askatasuna ematen digu. Baina askatasun hori, aldi berean, beste neurri batean kentzen digu. Ondorioz, gizarteak asko ematen du, baina aldi berean, asko kentzen digu.

**Egilea: Lierni Aranzadi, 4B**



# Iñigo Dierez idazlearekin hizketan

Joan den ikasturtean, DBHko ikasleok Iñigo Dierezen KATU liburua irakurtzeko aukera izan genuen. Izugarri gustatu zitzaizgun liburu hau. Bullying-aren gaia du ardatz, eta istorioak behar harrapatzen du irakurlea. Hori dela eta, guk ere erraz eta gustura irakurri genuen.

## Hau da sinopsia:

Asier bullyingaren biktima da, gelako hiru lerdok bizitza izorrazten diotelako. Bat-batean, katu bat azaltzen da bere bizitzan, bere nahiak asetzeko prest. Horren truke, katuak ekintza berezi bat egingo du: Asierrek maite duen norbait eramango du bizidunen mundutik. Zorakeria, baina egia balitz? Proposamen ero bezain arriskutsua, ezta? Oraindik irakurri ez baduzue, irakurtzeko modukoa da!

Liburua irakurri genuela eta, ia zoko ikasturtearen bukaera aldera, Iñigo Dierez gonbidatu genuen gure ikastetxera, eta bere

hitzaldia bukatutakoan, elkarriketa labur bat egiteko aukera izan genuen irratan. Hona hemen ordukoan bildutakoak:

## Zerk inspiratu zintuen Katu idaztera?

Lehenengo ideia *Un monstruo viene a verme* pelikulatik hartu nuen. Munstro hau gaiztoa izan balitz, zer?, pentsatu nuen. Antagonista sortu zenean, istorio bat neukala konturatu nintzen eta Katu idazteari ekin nion. Horixe izan zen abiapuntua.

## Zenbat liburu idatzi dituzu orain arte?

Idatzi? Idatzi hiru, baina argitaratu, bi. Egia esan, gaur egun argitaratzea ez da batere erraza, saiakera asko egin behar dira.

## Noiz hasi zinen liburuak idazten?

Idatzi espalditik egiten dut, baina 21 bat urterekin planteatu nuen lehenengo aldiz liburu bat

argitaratzea.

## Nolatan hasi zinen liburuak idazten?

Egia esan, nire aitona Iñaki Diez izan zen inspiraziorik handiena. Literaturaren edo istorioen munduan murgildu nintzen bere bidez.

## Zein da zure libururik motzena?

Motzena lehena izango da, Clown izenekoa; 100 orri baino askoz gehiago ez ditu. Luzera ez da garrantzitsua hala ere, ezta?

## Eta zure liburuetatik zein liburu gustatzen zaizu gehien?

Katu. Ni Katurekin gelditzen naiz, zalantzarik gabe. Maitasun berezia diot. Oso ondo pasatu nuen idazten eta geroztik konturatu naiz harrera beroa izaten ari dela. Beraz, zer esan? Oso pozik nago!

## Zein izan zen zure lehen liburu?

## Ezezaguna

Begiak itxi ditut,  
lokartu nahian.  
Begiak ireki ditut,  
ezin zutaz ahaztu.  
Ohetik altxatu naiz,  
ur pixka bat edan dut.  
Mugikorra hartu dut,  
zure mezua ikusi nahian.  
Hutsik ikusi dut,  
tristura sartu zait.  
Ohera joan naiz,  
lokartu egin naiz.

Goizean esnatu naiz,  
bakarrik nago.  
Whatsapa begiratu dut,  
zure mezurik ez.

## Zergatik?

Nire bizitza zergatik beteta dago, eta hauek dira nire zergatiak, zuretzat:

Zergatik ni eta ez beste inor?  
Zergatik niri eta ez beste inori?  
Zergatik huts egin zenidan?  
Zergatik ez zinen inoiz nire ondoan egon,  
ni zure ondoan egon nintzenezan?  
Ba al dakizu zein den maitasunaren benetako esanahia?  
Esango dizut:  
norbaiten maitasuna sentitzea  
Pertsona batek arma bat ematen dizunean eta arma horrekin sastakatu ahal izango dizula jakitean,  
zergatik ematen dizu?  
Ziurtasuna duelako  
noizbait eman zizun arma horrekin



2. DBHko ikasleak Iñigo Dierezekin

Lehen esan dizuedan bezala, lehen liburuak Clown izan zen.

## Nolako izan zen idazte-prozesua?

Hori prozesu desberdina izan zen, Katuren aldean. Argitaratze prozesu guztiaren berri izan nuen eta nola neure poltsikotik ordaindua zen, pauso guztiak kontrolatzen nituen. Lehenengo bidali, hurrena maketazioa, gerora zuzenketak eta, azkenik, argitaratzearen azken fasea, dendara iristen denean.

## Bukatzeko, zer izan nahiko zenuke idazlea ez bazina?

Deitu egin zaitut,  
ez duzu hartu.  
Kalera irten naiz,  
haizeak eramanez.  
Zu ikusi zaitut,  
hala iruditu zait.  
Beste batekin zaude,  
nitaz ahaztu zara.

Etxera itzuli naiz,  
malkoak aurpegian.  
Amorratuta nago,  
tristura barrupean.  
Berriz deitu dizut,  
oraingoan hartu duzu.  
Non zauden galdetu,  
"bidean" esan duzu.  
Txirrina entzun dut,  
zer egingo dut.  
Irekiko dizut,

baina ez oso ziur.

Sartu zara etxean  
gezurti aurpegi batekin.  
Dena kontatu dizut,  
oraingoan zu negarti.  
Maleta prest daukat,  
zuk jarraitu malkotan.  
Agur esan dizut,  
eskailerak jaisten ari naizela.  
Portaletik ateratzean,  
mutil batek hitz egin dit.  
Zuregatik galdetu dit,  
nik suzko begirada jaurti diot  
eta hala erantzun diot:  
*Ez dut ezagutzen, orain ezezaguna zait.*

**Egilea: 4. mailako ikasle anonimoa**

zugandik urrun.  
Gu izan ginen, eta nik uste nuen inoiz ez zinela joango,  
nirekin borrokatuko zenuela,  
eskuz esku borrokatu,  
baina, dirudienez, hori ezin da gertatu,  
okerreko maitasun-kontzeptua duzulako.  
Maitasunak dena nahi du, zure mutil edo neskalagunari kalterik egin gabe eta hori ez zenuen nirekin egin, min hartu dut,  
hustu egin nintzen.  
Egunen batean aurpegian irribarrea nuela sinetsi ezinik,  
ametsak, xedeak, bete beharreko helburuak ...  
horretatik guztitik,  
jada ez da ezer gelditzen.

**Egilea: Samira Tamegne, 4.DBH**

## Nortasunaz

Nortasuna gu definitzen gaituen eta besteengandik bereizten gaituzten ezaugarri multzoa da.

Hau da, gu nolakoak garen. Guk nolako nortasuna daukagun jakiteko, ezaugarri batzuk begiratu behar ditugu. Alde batetik, ezaugarri biologikoak daude, gure gurasoengandik hartzen ditugunak. Beste alde batetik, ezaugarri soziokulturalak daude, gu hazten joan garen heinean jaso dugun heziketa edota gure ingurune kultura. Ezaugarri horiek zure nortasuna nolako den erabakitzen dute, baina nortasuna moldatu daitekeen zerbait da, bizitzan zehar hartzen dituzun erabakiek zure nortasunari eragin diezaioke. Horixe da hirugarren ezaugarria, ezaugarri pertsonala. Honek esan nahi du, zu hasten bazara ekintza batzuk egiten, ohitura bilakatu ditzakezula eta ondoren zure nortasuna defini dezaketela.

Nortasuna, hein handi batean, norberak hartutako erabakiek osatzen dute. Erabakia zuk nahi duzulako edo zuri ondo iruditzen zaizulako hartzen baduzu, nortasun autonomoa duzu. Hau da, erabakia hartzean zure iritzia garrantz

tzi handia ematen diozun seinale. Aldiz, erabakia hartzean besteen iritzia edo besteen nahia betetzea kontuan hartzen baduzu, nortasun heteronomoa duzu; alegia, besteek nahi dutena egiten duzu, nahiz eta ez izan zuk nahi duzuna.

Nortasuna finkatzen den garaia nerabearoa da. Bertan gurasoengandik urruntzen zara eta lagunak oso garrantzitsuak bilakatzen dira. Zure emozioak ondo kontrolatzen jakitea oso garrantzitsua da, etapa zaila da eta adimen emozional ona edukiz gero, momentu bakoitzean zer egin jakin dezakezu eta erabaki egokiak hartu; horrek nortasuna eraikitzen lagunduko dizu.

Nire ustez, nortasunaren gaia oso konplexua da, alderdi asko hartu behar baitira kontuan. Azkenean, norbera nolako den definitzen du. Moldatu daitekeen zerbait da, baina ezin da aldatu. Klasean irakurri genuen ipuinean adierazten zenez, norbere barnean bi lehoi daude: elikatzen duguna hantzen da, baina beste lehoia ez da desagertzen. Azkenean, norberak bere nortasuna onartzen ere jakin behar du; inor ez da perfektua.

**Egilea: Nerea Gomez, 3B.**

# Albiste eroak

## Izarrak maiteminduta

Esne Bidea galaxiako bi izar berriro elkartu dira eta Lurra planetara egingo dute bidaia.

Azken 20 urte hauetan elkarren berri izan ez duten bi izarrek, berriz ere topo egin dute unibertso-ko txokoren batean. Izar hauek aspalditik zeuden maiteminduta, baina gau batean, izarren festan zeudela, izar bat bestearengandik aldendu egin zen eta ondorioz, galduta pasa ditu azken 20 urteak. Bi hamarkada hauetan bi izarrak triste eta distirarik gabe egon dira, depresio handia batean sartuta. Baina duela aste batzuk, berriz ere bi izarrek zeruan topo egin zuten eta egun horretatik aurrera, berriz ere hasierako distira berreskuratu dute. Zeharo maiteminduta daude eta bikote harremana hasi dute berriz. Berri on hau ospatzeko, bi astroek bidaia zoragarria egingo dute Lurra planetara.

Hedabide honi adierazi diotenez, bidaia hau apirilaren 20an hasiko dute. Berez, asmoa lehenago egitea zen, baina orain arte ezin izan dute bidaia hau egin, Covid-a dela eta (ez baitzuten Covid pasaportetik).

Bidaia luzea izango da. Lehenik, bi izarrak Saturnoren eraztunetik pasako dira Jupitera iritsi arte eta hortik Martitzera abiatuko dira. Bertan, 8 egun igaro ondoren, azkenik, Lurra planetara iritsiko dira eta bertan denboraldi luzea pasako dute.

Hau esan du NASAko arduradun den, Elisabeth Etxeberria astronomoak: "Sekulako gogoa dugu izarrak berriz ere gure zeruan distiratsu ikusteko".

**Egilea: Laida Pova (3D-ko ikaslea)**

## Zuhaitzak eskolara

Zuhaitzek ere eskolan parte hartzea ongi legokeela pentsatu du Arantzazuko Amako BHI zuzendari taldeak.

Arantzazuko Amako BHIko zuzendaritzak zuhaitzei ikasteko aukera luzatu nahi die. Zuzendaritzaren ustez, zuhaitzak ikasleak baino langileagoak dira. Ondorioz, hauek aukera gehiago izango dituzte kurtsoa pasatzeko, ikasleek baino.

"Gaur egungo ikasleek ez dute arretarik jartzen, festetara ateratzea besterik ez dute buruan eta zuhaitzek, berriz, orriak eman ahalko dizkigute eta liburuak merkeago egin, beraiek ikasten duten bitartean" adierazi du zuzendari buruak.

Hasiera batean, aldaketa hau arraroa dela pentsa dezakete askok. Baina, Arantzazuko Ama ikastetxeko zuzendaritzaren arabera, ongi hausnartuz gero, ideia paregabea da. Aldaketa honi esker, emaitzak asko hobetuko dira eta orain arteko suspentso kopurua asko jaitsiko da.

Neurri berri hau apirilaren 5ean jarriko da indarrean. Hasiera batean, 25 zuhaitzek hartuko dute parte Arantzazuko Amako eskolan beste ikasleentzatean. Zuhaitzen gurasoak pozik daude beren seme alabek ere ikasteko aukera izango dutelako eta ondorioz, lanpostu duin bat lortzeko aukera erraztuko zaielako. Erabaki hau martxoaren 26an hartu zen eta pixkanaka Euskal Herri osora zabaltzea da asmoa.

Ikasleek oso pozik jaso dute azken berri hau. "Poza ematen dit zuhaitzek ere ikasi ahal izateak, horrela, beraiek egingo dituzte azterketak eta guk beraiei eskatu ahal izango dizkiegu orriak", adierazi du ikasle batek. Ikasleek beren poza adierazi dute, baina hainbat gurasok ez dute gauza berbera adierazi. Badirudi ikasleak zigortuz gero, hauek zuhaitz moduan egon beharko dutela egun osoan zehar hausnarketa sakon bat egiteko. Azken datu hau oraindik ez zaie ikasleei adierazi, baina beren protestak ikusirik, ez adieraztea pentsatu dute eta zigortzen dituztenean ikustea.

**Egilea: Naroa Agirrezabalaga (3C-ko ikaslea)**

## Eguzkia greban

Eguzkiak adierazi duenez, apirilaren 11,12 eta 13an Eguzkiak greba egingo du.

Gaur goizean Eguzkiak mezu garrantzitsu bat bidali die Lurra planetako herritar guztiei. Berak esan duenez, apirilaren 11, 12 eta 13an greba egingo du oso nekatuta baitago. Hauek izan dira bere hitzak: "Mila urte eman ditut Lurra argizatzen eta berotzen. Urte hauetan ez dut inoiz deskantsurik egin. Ez baldin banago Lurraren alde batean, bestean nago. Eta horrela, gelditu gabe". Eguzkiak esan duenez, nazkatuta dago berak Lurra

planetako izaki bizidun guztiei hainbeste emateaz, eta trukean ezer ez jasotzeaz.

Eguzkiak hedabideei adierazi dienez, urte guzti hauetan Eguzkia ez da behar bezala baloratu, ez da aintzat hartu. Adibide bat botatzearren egutegian ez dago egun seinalaturik Eguzkiaren lana eskertzeko. Aldiz, Uraren eguna dago, Emakumeen Eguna, Langileen Eguna, Aitaren edo Amaren Eguna... Eta non dago Eguzkiarena? Ondorioz, egoera honekin nazkatuta, Eguzkiak greba egingo du apirilaren 11, 12 eta 13an, bere bizitzan lehen aldiz deskantsatu ahal izateko eta Lurra planetako biztanleak bere beharraz konturatzeko.

Eguzkiak gaur goizean eman duen azalpen mezu hau 250 hizkuntza ezberdinetan eman du, bere egoera Lurra planetako gizaki guztiek ulertu ahal izateko. Hauek izan dira Eguzkiaren inguruan aditua den Patxi Eguzkitza zientzialariaren hitzak: "Eguzkiak grebak arazo larriak ekar ditzake Lurra planetako bizidunentzat. Alde batetik, egun horietan landareek ezin izango dute euren fotosintesia egin, eta beraz, honek landaredia guztian eragin negatiboa izango du. Beste aldetik, elektrizitatearen zati bat desagertu egin daiteke, eguzki plaketatik etortzen delako. Gainera, egun horietako energia kontsumoa izugarri igoko da; izan ere, argitasuna beharrezkoa da jendeak bere ohiko jarduna burutzeko".

Eguzkitza zientzialariaren gomendioak hauek izan dira: Gaur eta biharko egunak ongi aprobetxatu behar dira janaria, pilak eta kandelak erosteko (pilak linternentzat eta kandelak etxea eta ingurua argizatzeko). Gasa erostea ere gomendagarria da, norberak bere janaria berotu ahal izateko. Ea ba greba honek ez duen luze irauten.

**Egilea: Garikoitz Barace Garmendia (3C-ko ikaslea)**

## Eskolak koronabirusa

Eskolak koronabirusa harrapatu du eta ikasleak 10 egunez ezingo dira eskolara joan.

Arantzazuko Amako BHIko eskolako atea, 15 egunerako itxita.

Martxoaren 27an eskolak koronabirusa harrapatu zuen, eta hurrengo 15 egunetan ikasleak ezin izan zuten eskolara joan. Eskolako zuzendaritza taldeak eskolak bi astez bertan behera uztea erabaki zuen, ikasleak Covid gaitasunetik babesteko.

Iragarpen honek sorpresa handia eragin zuen bai irakasle eta bai ikasleentzatean ere. Ez zuten inolaz ere horrelakorik espero. Egun horietan zeuden azterketak eta entregatzeko lanak ere bi astez atzeratu behar izan zituzten.

Jakin dugunez, Arantzazuko Ama BHI eskolaren osasun egoera ez da larria, baina 15 egun hauetan konfinamendua bete beharko du. Marijose Iparragirre historiako irakasleak zera azaldu digu: "Oso haserre nago, ikasleei ezingo diedalako klaserik eman, eta gainera, soldatarik gabe geratuko naizelako 15 egun hauetan zehar". Ikasle gehienak, berriz, oso pozik jarri dira berri honekin, eskolaz pixka bat nazkatuta zeudelako (bai ikasteaz eta baita etxeko-lanak egiteaz ere).

Zuzendaritzak azaldu digunez, behin 2 aste hauek pasa ondoren, eskolara bueltatzen ikasleek derrigorrez FFP2 maskara jantzita eraman beharko dute, temperatura hartu beharko die goizero irakasleek eta ezingo dituzte lanak taldeka egin.

**Egilea: Hielen Betelu (3C-ko ikaslea)**

## Itsasoak dimisioa eman du

Itsasoak Lurra planetarekin zeukan kontratua eten egin du denboraldi batez.

Itsasoaren argazka, bere dimisio egunean.

Itsasoak astelehen honetatik aurrera, agur esango digu denboraldi batez. Erabaki honen atzean arrazoi sakon bat dago: Lurra planetako hainbat tokitan tratu desegokia jasaten ari omen da eta egoerak nazkatuta, dimisioa ematea erabaki du.

Aipatu digu, laguntzaile batzuk dituela bera garbitzen laguntzeko. Sare handi batekin garbitu behar dute zaborra eta plastikoa kentzeko. Egunero egunero bere gorputzetik ateratzen den zikinkerikantitatea nazkagarria dela aitortu digu. Garbiketa bakoitzean, 50 tona zikinkeria ateratzen dute.

Itsasoaren seme-alabek (itsasoko bizidun guztiek) ere kontratua bertan behera utzi dute, gizakiek bere ama oso gaizki tratatzen dutelako. Hala, beste planeta batera joatea erabaki dute eta ikusten dutenean Lurra planetako biztanleek jarrera hobetu dutela, ekaitz handi baten modura itzuliko dira.

Itsasoak zera adierazi du: "Hau abisu bat besterik ez da. Grebatik bueltatzen naizenean,

egoera berdina bada, betiko joango naiz Lurra planetatik". Itsasoaren garbiketa taldeko partaide batek honako hau esan digu: "Gure itsasoa oso gaizki zaintzen ari gara. Itsasoak errespetua merezi du, gainontzeko izakiek bezala. Garbiketa egun bakoitzean, guztioik harrিতuta bukatzen dugu, gero eta zikinkeria gehiago ateratzen diogulako. Mesedez, goazen tratu txarrak alde batera uztera, gure itsasoa hemen ikusten jarraitu nahi badugu".

**Egilea: Mara Turri (3D-ko ikaslea)**

## Teilatuak ihesi

Munduko teilatu guztiek ihesi egin dute etxeetatik eta Ilargira joan dira bizitzera, bitza hobe baten bila.

Atzo gaueko hamaiketan munduko teilatu guztiek etxe guztiak abandonatu egin zituzten. "Nazkatuta gaude, denek oso gaizki tratatzen gaituztelako, ez gaituztelako garbitzen ezta beroa ematen ere". Hori esan du teilatuen buruak. Gertaera hau oso gaizki datorkigu gure egunerokotasunean ezingo dugulako lo ondo egin, hotz handia pasako dugu. Teilatuak orain Ilargira joango dira bizitza hobe baten bila.

Bata bestearen gainean jartzen ari dira Ilargira iristeko. Ez dakigu iritsiko diren ala ez, baina espero dugu Ilargira joatean, bertako egoera hobea ez dela konturatzea eta eta berriz ere Lurrera itzultzea gu babesteko. Bitarte honetan munduko guztiko herritarrok beste metodo bat bilatu behar dugu lo ondo, lasai eta hotzik gabe egiteko.

"Oraingoz manta handi bat jarri beharko dugu gure etxetan hotzetik babesteko" esan du Jolka Maders zientzialari ospetsuak. Hainbat komunikazio bideetan agertu da notizia hau eta batzuk Eguzkira goango direla esan dute, baina lehen esan bezala, teilatuen buruak Ilargira joango direla esan du. Poliziak teilatuak gelditzen saiatzen ari dira, sua ematen, sokekin lotzen eta Ilargira joatea ez uzten. "Utz gaitzazue bakean, utz iezaguzue nahi duguna egiten. Gure bizitza, gure erabakia" esan du teilatuen ordezkariak. "Horrela jarraitzen badugu, lortuko dugun bakarra teilatuak ez bueltatzea izango da" esan du Kalim Barum zientzialari ospetsuak. Espero dugu hau dena konpontzea eta laister teilatu guztiak gure etxetara bueltatzea.

**Egilea: Uxue Lajas (3C-ko ikaslea)**